

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NOZ-Osasunbideako ospitaleek menu tipikoak eskainiko dituzte Gabon zahar gauean, Urteberri egunean eta Errege egunean

Menu horien prestakuntzan ospitaleetako dietistek eta nutrizionistek hartu dute parte.

Igandea, 2018.eko abenduak 30

Garai hauetan ohikoa denez, eta Gabon gauean eta Eguberri egunean bezala, Nafarroako Osasun Zerbitzuko-Osasunbideko ospitaleek menu bereziak eskainiko dizkiete bertan dauden pazienteei Gabon zahar gauean, Urteberri egunean eta Errege egunean.



Lizarrako García Orcoyen ospitalea.

Menu horien prestakuntzan ospitaleetako dietistek eta nutrizionistek hartu dute parte.

Horrela, Nafarroako Osasun Multzoak (Nafarroako Ospitalea, Virgen del Camino Ospitalea eta Ubarmin Klinika) eskainiko duen menua hau izango da: eskarola entsalada sagarrarekin, gazta freskoarekin eta mahaspasekin; otarrain ukitua duen legatza mahonesarekin; Jijonako turroi krema eta zortearen mahatsak. Urteberri eguneko bazkarian, berriz: kardoia almendrekin, oilaskoa sagar eta okaran saltsan, gazta tarta ahabiekin eta Eguberrietako gozokiak. Errege bezperako gauean itsaski krema, bakailao gratinatua ali-oliarekin eta Errege erroka. Urtarrilaren 6ko bazkariak alkatxofak urdaiazpikoarekin, iberiar masailak saltsan patata salteatuekin, eta pantxineta izango ditu.

Tutera

Tuterako Reina Sofía Ospitaleari dagokionez, Gabon zahar gauean zigala krema brandyarekin, barazki milorria, bakailaoa tipularekin eta baratxuri mahonesarekin eta zortearen mahatsak eskainiko ditu. Urteko lehenbiziko bazkaria gari-zainzuri eta ganba krema, kukuluak antxoia ozpin-olioarekin, masaila errea tipula karamelduarekin eta gazta tarta eta askotariko turroiak izango da.

Amaitzeko, Errege eguneko bazkaria okela-salda jerezarekin, itsaski pastela, pikantoi erreak sagar saltsarekin, errege erroka eta askotariko turroiak izango da.

Lizarra

Lizarrako García Orcoyen Ospitalean, Gabon zahar gauerako

programatu den afariak arrain zopa, askotariko entremesak, zapotxo labean, urte amaierako mahatsak eta askotariko turroiak izango ditu. Urteberriko bazkarian, berriz, okela-salda, otarrainxkak plantxan, arkume errea panadera patatekin, Carolina tarta eta askotariko turroiak aterako dira.

Errege bezperako gauean, entsalada ahuntz gaztarekin, izokina saltsa tartariarrekin, errege erroka eta askotariko turroiak banatuko dira. Urtarrilaren 6ko bazkariak bakailao eta ganba hostorea, entrekota piper berdeekin, mamia eta askotariko turroiak izango ditu.

San Francisco Javier Zentroa

San Francisco Javier Zentroan, Gabon zahar eguneko afaria itsaski kremarekin hasiko da. Ondoren, piperrez eta urdaiazpikoz beteriko azpizuna tipula karamelduak lagunduta eta amaitzeko bertan eginiko turroi flana, zortearen mahatsak eta limoi sorbetea. Urteberri eguneko bazkariak plater hauek izango ditu: bieiraz eta ganbaz beteriko hostorea eta masailak barazkitxoekin eta patata purearekin. Postrerako, txokolate zuri eta fruitu gorri zopa, turroiak eta izozki kopa.

Amaitzeko, Errege eguneko menuak txaka entsaladilla, mokadutxo txikiak, otarrainxka egosiak, bakailaoa pil-pilean gulekin, errege erroka, turroiak eta limoi sorbetea izango ditu.